

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Zinemari omenaldia, Andoaingo Kale Nagusian

Bertan zegoen Iparragirre zinemari gorazarre eginez, mural ikusgarriak landu dituzte. Ostegun honetan, Zinema Kalean / 14

Uda giroko Gazte Festak Urnietan

Urnietako Udalak jai guztietan egon den parte hartzea nabarmendu du, asteburuan zehar gaez izan diren istiluak deitoratzearekin batera / 6-9

ESKALA SanMarko 2019

Kanpaina hau abian ipini da herritar guztiel etxeetan sortzen dituzten hondakinak gaika bildu behar direla gogorarazteko.

Halaber, helburu hori azpimarratzen duten artelanak jarri dira hainbat eskalaretan (non dauden esteka honetan kontsulta dezakezu www.eskalasanmarko.eus) eta horiek ikusteaz gain, ekainean zehar ondorengo herrietan izango gaituz: Astigarraga, Donostia, Errenteria, Lasarte-Oria, Lezo, Pasaia eta Urnieta.

Puntu informatzailea Urnietan:

Ekainaren 28an (ostirala), San Joan plazan, 9:30etik 14:00etara.

sanmarkos
MAGNOCOMUNITATEA

ecoembes
El poder de la colaboración

ecovidrio
Gaur irakurketa, erabaki geroa



111 AKADEMIA: SARIA 2018

EKAINAREN 6AN, OSTEGUNAREKIN, 19:00-ETAN
HASIKO DA 111 AKADEMIAREN SARIA 2018
IRABAZLEARI EMATEKO EKITALDIA,
AMASAN, HIKA TXAKOLINDEGIAN.



2018. URTEKO 111 AKADEMIAREN SARIA HARKAITZ CANO

idazleak hartuko du
FAKIRRAREN AHOTSA
eleberriatik

- 19:00 Bisita laburra Hika txakolindegiaren upategietara.
- 19:15 Olatz Prat, Josune Marin eta Joxan Goikoetxea musikarien emanaldia.
- 19:20 Saritutako obraren irakurketa.
- 19:25 Saria ematea.
- 19:30 Saritutako obraren irakurketa.
- 19:35 Olatz Prat, Josune Marin eta Joxan Goikoetxea.
- 19:40 Amaiera, Roberto Ruiz sukaldariak prestaturiko zizka-mizkak dastatuz.

Antolarzaile:

- 111 AKADEMIA,
- MANUEL
- LARRAMENDI
- KULTUR
- BAZKUNEKOR



Babesle:



2015ko ekainaren 13ko kargu hartze ekitaldia, Udal batzarraldi aretoa jendez gainezka zegoela. AIURRI

Kargu hartze ekitaldiei begira

Ekainaren 15ean Udal korporazio berriak osatuko dira, 2019-2023 agintaldiari ekiteko. Urnietan Mikel Pagola alkate izendatuko duten bitartean, Andoainen 17 zinegotzik Maider Lainez edo Andoni Alvarezen artean aukeratu beharko dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Udal hauteskunderen kanpainak bi asteko iraupena izaten du. Kargu hartzeko ekitaldirako, aldiz, denbora gehiago behar izaten da. Zehazki, hiru aste. Politika gertutik eta pasioz bizi duten andoaindarrentzat, emozioz beteriko garaia izaten da. Duela lau urte bezala, gehiago osorik ez baitago. Garailea Alvarez izan zen, baina aritmetikoki Lainez ere alkate izan daiteke. Eta nazio mailako hedabideek diotenez, EAJ-PNV eta PSE-EE Euskadiko mailako akordioak lantzen ari dira.

Alkatea aukeratzeko prozedura
Andoainen, orain arte, zinegotzi bakoitzak alkategaia boto sekretuarekin bidez aukeratu du. Hautagaiaren izena paper batean idatzi eta idazkariak eskaintzen dion hautes-ontzian sartu behar

du. Ondoren, botoen zenbaketa-ri ekiten zaio. Lehen bozketa horretan gehiago osoa lortzen duen hautagaiak alkate izendatuko du. 17 zinegotzietatik 9ren babesa behar da. Gaurkoz, alkatezarako Andoni Alvarezek

(EH Bildu) eta Maider Lainezek (PSE-EE) bere burua aurkeztuko dutela ziurtat eman daiteke.

Bozketan gehiago osoa lortu ezean, maiatzaren 26ko irabazleak jasoko du aginte-makila. Kasu honetan, Andoni Alvarezek.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

"Entzun-erantzun dinamika sustatu nahi dugu"

AINARA DE MIGUEL URNIETAKO EH BILDUKO ZERRENDABURUA

Andoni Urbistondo URNIETA
Ekainaren 15ean osatuko da udalbatza berria. Han izango da Ainara de Miguel, bere lan taldea alboan duela. Lau zinegotzi lortuta, balorazio positiboa egiten du, EAJK bigarren gehiengo osoa lortuta ere. Sarea sortu nahi du herrian, ikusgarritasuna lortu, lau urte barru herria esnatu nahi ote duen jakiteko.

Hamar egun pasa dira hauteskundeetatik, zer pasa da tarte horretan? Zein da zuen balantzea?

Batzar bat egin genuen, eta plan estrategiko bat abiatzeko asmoa dugu. Proiektu berri bat abiatu behar da, ikuspuntu eta estrategia ezberdinarekin. Zerrendako kideok nahiko gestore onak garela esango nuke, praktikoak, eta errealitatea aztertu, izena eman, eta izen horri aurre egin nahi diogu. Eta izen horrek EAJK bigarren gehiengo osoa lortu duela dio.

Jendea entzun dugu batzarrean, kalean... Horiek prozesatu nahi genituzke, bidea hasteko.

Zein izango da estrategia hori?

Kontsultak egin, informazioa helarazi, ahoz aho eta sare sozialen bitartez, gonbidapen konstanteak parte hartzeko, eta entzun-erantzun dinamikan sartu, eman eta jaso. Gu ez gara EHBildu, koalizioko bozeramaileak bakarrik gara, eta ezin dugu entzuten ez den talde baten bozak guretzat hartu. Errealitate bat dago, datuak aztertuko ditugu, eta datu horiekin erantzun bat eman, guk nahi dugun bidetik joateko.



AIURRI

Erdi betea, edo erdi hutsa ikusten duzu edalontzia?

Kalean basoa erdi hutsik sentitzen duena somatzen badugu ere, lanerako gaudenok basoa erdi beterik ikusten dugu. 838 boto dira, eta botuemaile horien borondatea ordezkatzeko bete beharra daukagu hurrengo lau urteetan.

Lau zinegotzi zer da, espero zenuena? Gehiago? Gutxiago?

Nik neuk 3 zinegotzi espero nituen, lau baino. Gazteen parte hartzea egongo ote zen nire zalantza, haiek parte hartzen bazuten gure aldekoa izango zelako. Zalantza ere banuen aurkeztu garen batzuk ez garela Urnietan jaiok, edo azken aldiaren ezker abertzaleko inguruan ibilitakoak. Urnieta mailan aurreikuspenak nahiko ezkorrak ziren, baina emaitzak bestelakoa esan dute. Gehiengo osoa hausteko ilusioa banuen, baina loteriarekin edukitzen den bezalakoa, oso txikia.

Mikel Pagola alkatea babestu du herriak, bigarren gehiengo osoz.

Analista naiz, eta datuak aztertu zale, iritzi pertsonalez harago. Lau urtetan, errolda 50 lagunetan hazi da, eta parte hartzea, %3.

Horrekin zer interpretatzen dut? EAJK 1.500ean daukala bere boto langa. EHBilduk, bere kanpaina eta talde gaitasuna ikusita, 838. Abstentzio zulo handi bat dagoela uste dugu, aztertu gabe daukaguna. Sarea indartzen badugu, zulo horri izena jartzen badiogu, eta %64ko parte hartze hori %70era igotzen badugu, 1.000 botoko langa iristeko gai garen jakingo dugu. Eta ez bagara, ba onartu beharko dugu gure politikak ez direla herri honek une honetan nahi dituenak. Momentuz ez dugu erantzun objektiborik.

Hipotesirik bai?

Sare eta ikusgarritasun falta. Hauteskunde egunean, EAJK taldea, antolaketa, babes, estrategia, enpresa marka duela ikusi nuen, eta ikusten dut guk hori ez daukagula.

Bildu zara EAJKo kideren batekin?

Kalean elkar ikusi genuen, topaketa informala. Kolaborazio eskaintza egin zidaten, adeitsuak izan ziren.

Zein izango da koalizioaren lan moldea, praxis-a, hurrengo lau urteetan?

Proposatzen ari gara, lanerako gauden taldea ikusita, taktikaren bat probatzea da. Eraginkorra dela? Aurrera. Ez dela? Ba beste taktika bat erabili. Ezin duguna egin da egunak pasatzen utzi. Ekarpene potoloak egiten ari dira alboan izango ditudan zinegotziak, eta lau kiderekin, gestio ona egin dezakegula sinetsita nago. Ezin duguna ezkortasunean murgildu, ez du laguntzen. Egoera ona ez denean, hobetzea tokatzen da.

Iluntasunean murgiltzeak ez digu ezer onik ekarriko. Helburu lorgarriak, txikiak finkatu behar ditugu, kontsentsuz adostu, beti, informazioa zabalduz, autokritika eginez, eta diagnosi batekin, erantzuna emateko.

Lau urtera bista, ze helburu dauka EHBildu koalizioak?

Herri mugimendu bat sortzea, herri bat suspertzea, herri proiektu bat garatzea, talde bat egitea. Herria esnatzea. Ilusioa daukagu, eta ikusi beharko da utopia bat den, edo lortzeko modukoa. Baina hasten ez bagara ez dugu inoiz jakingo. Eta hasi gara. Batzar bat egin dugu dagoeneko Idiazabal kaleko lekalean, eta aztertuko dugu hurrengoak non egin. Ez gara enpresa bat, herri talde bat baizik. Eta herri taldea egiteko herria behar dugu.

Kargua hartuko duten zinegotziak

ANDOAIN

EH BILDU:

1. Andoni Alvarez.
 2. Esti Mujika.
 3. Jon Zulueta.
 4. Garazi Usandizaga.
 5. Julian Lopez.
 6. Maite Etxeberria.
 7. Xabier Fondon.
- PSE-EE:
8. Maider Lainez.
 9. Jose Luis Verdasco.
 10. Ascen Parron.
 11. Petri Romero.
 12. Oscar Mendo.
- EAJ-PNV:
13. Marijose Izagirre.
 14. Mikel Arregi.
 15. Iñaki Egibar.
 16. Txitxu Ruiz.
- ELKARREKIN PODEMOS:
17. Tere Santana

URNIETA

EAJ-PNV:

1. Mikel Pagola.
 2. Jorge Segurado.
 3. Lucia Goñi.
 4. Agurtzane Mercader.
 5. Juan Luis Goikoetxea.
 6. Mikel Artola.
 7. David Rosco.
- EH BILDU:
8. Ainara de Miguel.
 9. Ainhoa Jauregi.
 10. Mikel Legarreta.
 11. Nekane Ubillos.
- PSE-EE:
12. Herme Gonzalez.
 13. Consuelo Frutos.

*Kargu hartze ekitaldia ekainaren 15ean izango da.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Udal hauteskundeak
aiurri.eus webgunean

Atal berezia:

aiurri.eus/bereziak/2019-udal-hauteskundeak

www.aiurri.eus

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

SARE ANDOAIN ETA URNIETA

Bakea Euskal Herrian. Orain presoak

Sarek Biarritzen deitu duten giza katera joateko deia luzatu du. Bilkura 16:00tan da, eta autobusak 14:45tan irtengo dira Andoaindik eta Urnietatik.

2011ko Aieteko konferentziarekin, ETaren armagabete integralarekin (2017ko apirilaren 8an) eta bere desegitearekin (2018ko maiatzaren 3an), Euskal Herriko bake prozesuak ez du atzera egiterik. Alde bakartasuna izanen da elkar bizitza lasaitu eta demokratikoaren motore.

Alde bakarrekoaren indarra sortzen duen dinamika baikorrean datza eta alde aniztasuneraino doa, bake bidearen elkar-erakuntzara eramanez alde guztiak. Honela engeiatu dira Herri honetako aktore sozial eta politikoko gehienak eta honela ireki zen eztabaidarako espazio bat justizia ministerioarekin, 2017ko urrian.

Lehen egunetik diogu, prozesuaren bi elementu nagusiak biktima guztiak eta presoak dira. Biktima guztiak, zeini egia, errespetua eta ezagutza zor diegun eta presoak, zeinentzat konponbideak orokorra eta erabatekoa izan behar duen.

Historia ezberdinak bizi izan dituzten biktimen hitz eta ekintzek esperantza ematen diote bakeari: minaren gainetik, orria itzultzen

lagundu nahi dute. Ez dute mendekua eta gorrotoa onartzen eta herri honentzat elkarren arteko etorkizun bat pentsatzeko.

Antolatzen dugun giza kateak "Presoak orain!" aldarrikatu nahi du. Justizia ministerioarekin ireki eztabaida guneak presoan hurbilketa eta DPS estatutuaren kentzea ahalbidetu ditu. Garai konplikatu baten ondorioz, eztabaida berriz ireki da eta bururaino joan behar du orain: Indarrez eta urgentziaz dei egiten diegu Estatuko goreneko agintariei!

Salbuespeneko neurriak kentzetik:

- DPS estatutuak kentzea.
- Presoen hurbilketa.
- Baldintzapeko askatasunak onartzea, larriki eri diren presoak askatzea (Ibon Fernandez Iradi kondena etetea), kondenen komutazioa (Haranburu, Esnal, Parot).

Konponbide orokor eta erabatekoraino (hemen ere, beste bake prozesu guztietan bezala). Preso eta iheslari guztiak euskal gizartera itzuliz eta biktima guztien ezagupena, egia eta erreparazioaren baitan.

- Izan gaitzen bakegile!
- Bake justu eta iraunkor baten alde!
- Iragana errepika ez dadin!



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Zegama-Aizkorri

Ez daukat gogoan zenbat urtetan egon naizen Zegama-Aizkorri mendi maratoia ikusten jarraian. Igual zazpi, edo hamar. Mikel Legarreta eta Jokin Lizeaga dira erantzule nagusiak. Haiei eskatu kontuak. Haiei bultzatzeko asmoz ibili gara maiatzeko azken igandean, edo ekaineko lehenengoan, liturgia errepikatzen. 7tan kafea Gurian, Urnietan. Autoa hartu eta Kimi Raikkonenen pare Eitzegaraten gurgilak zukutu, eta Oztaurte gainera. Han, autoa, kanadar pasabidea baino harantzago utzi, estrategikoki, herriko korrikalariak ikusi ostean, garrote batean autoa hartu eta San Adrian aterpetxe azpiko errepide zuloaren batean uzteko. Handik, erraiak bota beharrean, Sancti Spiritura. Mendi bideak Z bat markatzen

duen gunera (bakarra dago). Han urnietar kolonia, ogitarteko, likido eta zintzarriak lagun. Ezagunak pasa ondoren, batzuk etxera, lanera, eta besteak Zegamara. Garaileak ikusteko iristea ezinezkoa.

Ederra da Zegama, ederra da Aizkorri, baina hainbeste jende ikusteak, goiz osoa hara eta hona presaka, korrika ibili beharrak ere nekatzen du... Everest, Aneto edo Mont-Blanc-en ikusten ditugun jende ilarak ditugu hizpide, baina Aizkorriko ermitak mendi maratoiko egunaz zer pentsatzen duen azaltzeko aukera balu... a ze egurra hara prozesioan hurbiltzen garenoi. Horregatik, aurten, urrutitik bizi izan dut Zegama-Aizkorri, telebistaren gertutasunari esker. Eta bero galdatan ito gabe, gainera, itzalean.

Irudi txukunak ETBn. Eta erraza ez. Jokin Lizeaga laguna komentaria. Gozatzen. Agerikoa da proban ari direnen

scouting zehatza egin duela. Kontatu ditu korrikalari bat futbolaria izan zela orain dela urte pare bat arte, beste bat bere etxean eduki duela, eta ausart bota du Kilian Jornet-ek ez duela errekorrik hobetuko, Urbian 2.55 egin duelako eta handik ordubete beharko duelako Zegamara iristeko. Eta asmatu. Korritu ezinda ere, gutxik ezagutzen baitute Zegama-Aizkorri Jokinek baino hobeto. Hurrengo urtean ere telebista aurrean jarri beharko, ikasteko... Komentarista baldin bada. Aukeran korrikalari izatea nahiago bailuke. Guk bezala. Ea hala den. Orduan Sancti Spiritura bueltatuko naiz berriro.

"KIROLARI GUTXIK EZAGUTZEN DUTE ZEGAMA-AIZKORRI JOKIN LIZEAGAK BAINO HOBETO"



Aiurri eskuragarri:
Ebez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goienna Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALIATUAK: ALIATUAK: TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
 ANDOAINGO UDALA
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
 ZIURTAGIRIA:
 BABESLEAK:
 AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Aurtengoa Euskadikorako puntuagarria izango da"

ARITZ LIZASO URNIETAKO XOXOKA MOTOR KIROL KLUBEKO KIDEA

Olatz Lasa URNIETA

Igande honetan, ekainak 9, Slalom proba ikusteko aukera izango da Erratzu industrigunean. 09:00etatik 10:00etara autoen azterketa egingo da, eta proba 10:30ean hasiko da.

Laugarren urtez ospatuko da aurten Slalom proba. Indarra hartzen doan seinale...

Hiru urtez Gipuzkoa mailarako puntuagarria izan da, eta aurten Euskadi mailarako puntuagarria izango da. Gidari askok Euskadi mailan puntuagarria delako eman du izena.

Ez dakienarentzat, azalduko al zenuke zertan datzan Slalom probak?

Azkartasun proba bat da. Irabazteko gaitasuna eduki behar duzu, eta horretarako autoak teknikoki prestatuta egon behar du. Horrez gain, segurtasun aldetik federazioak neurri batzuk ezarri ditu, hala nola deskonektadore elektrikoa ipintzea. Istripua balego, kableak erre eta surik ez hartzeko autoa automatikoki gelditu egiten da.

Segurtasun neurri gehiago hartu ohi dira. Zeintzuk?

Eserlekua eta kaskoa araututakoa erabili behar da. Eserlekuaren kasuan, autoak dakarrena edota 'baketak' deiturikoak ipin daitezke.



Aritz Lizaso Urnietako San Juan plazan. AIURRI

Azken horiek Nazioarteko federazioak araututakoak izan behar dute.

Zure kasuan, zer dela eta murgildu zinen Slalom munduan? Slalom proban behin hartu dut parte, Urnietan lehen aldiz ospatu zenean. Aurten ziurrenik ez dut parte

"AURRERA BEGIRA, RALLYSPRINT PROBA ANTOLATZEA GUSTATUKO LITZAGUKE"

hartuko. Rally, Rallysprint eta igoeratan gehiago aritzen naiz. Ekainaren 1ean Rally Goilurak proban hartu nuen parte, Lazkaoko Ikuilu Racing-ek eta Azkoitiko Errebueltie eskuderiak antolatuta. Aurten ospatu da lehenbiziko aldiz. Ez nuen

"PARTE HARTZERA ANIMATZEKO EMAKUMEENTZAKO SARIA SORTU DUGU"

amaitzea lortu matxura baten ondorioz.

Etiket datorkizun zaletasuna al da motor munduarena?

Txikitan motorrarekin, bizikletarekin..., gurpileko tramankuluetan ibiltzen nintzen. Anaiak eramaten ninduen rally lasterketak eta igoerak ikustera. Hortik dator kit zaletasuna. Bestalde, mekanikaria izandakoa naiz, eta lanbide horretan motorraren munduaz asko ikasi dut. Auto bat osatu dut, Seat Leon 1.8 T markakoa. **Beraz, autoari egin beharreko hobekuntzak etxean bertan egingo dituzu...**

Bai. Eskulana nik egiten dut eta egin ezin dudana tailerrera eramaten dut.

Gizezkoen zuzendutako kirol gisa ikusi ohi da autogintza.

Emakumezkoen artean zaletasuna sumatzen al da?

Emakumeak parte hartzera animatzeko emakumeentzako saria sortu dugu. Rally munduan pixkanaka ari dira emakumezko gehiago animatzen, gidari laguntzaile gisa gehiago baina gidari gisa ere badaude batzuk. Urtero Bizkaiko Usansolo automobil-taldetik bizpahiru emakume etortzen da.

Zer ikusi nahi du hurbiltzen denak?

Azkartasunean eta teknikan dago gakoa. Batzuk ikuskizuna ematera etortzen dira, eta beste batzuk autoa probatzera.

Etorkizunera begira, eskuartearen baduzue proiekturik?

Aurrera begira, inguruko mendietatik Rallysprint proba antolatzea gustatuko litzaiguke.

POSTONTZIA

MANIFESTUA ANDOAIN

Aukera bat merezi du

Apirilaren 28an eta maiatzaren 26an "Demokraziaren festa" bana izan zen Andoainen, hauteskunde bitartez. Biak ala biak, iritzi publikoan argi geratu zenez, garrantzia handikoak. Hauteskunde Orokorretan, eta baita Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan ere, Andoainen normaltasuna nagusitu da. Andoain maite eta bizi dugun guztiok gara horren kontziente. Ordezkaritza politikoei ere, adierazpen ezberdinetan, normaltasun egoera hori nabarmendu nahi izan dute.

Bi hauteskundeak alderatzen jarrita, azpimarragarria da maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetan alderdi batek eta bereziki hautagai batek jaso duen emaitza. Demokrazia garaiko boto kopuru handiena pilatu du, eta gainerako hautagaiei alde handia atera die. Herriak, demokrazia zuzenaren bitartez, oso epai argia eman die ordezkaritza politikoei. Gauzak horrela, herritarren mandatua jaso duten hamazazpi zinegotziei eskaera bikoitza egin nahi diegu: herritar gehiengoak adierazi duenari jaramon egitea, eta Andoaingo interesei eustea.

"Demokraziaren festa" ezin da hiru asteetara trukean erabiliko den txanpona bilakatu. Andoain normaltasunaren bidean murgilduta dago, eta andaindarrek oso mezu argia eman dute: Datozen lau urteetako gidaritzaz hartzeko aukera Andoni Alvarez Leteri dagokio. Datorren ekainaren 15eko kargu hartze ekitaldiari begira, herritarren mandatua bermatzeko beharrezko diren pausuak eman beharko litratekeela uste dugu. Eman diezaiozun aukera bat herritarrek adierazitakoari.

* **Sinatzaileak: Garbiñe Huizi, Xabier Sanchez, Ane Amondarain eta Benito Gaztañaga.**

GORA ETA BEHERA



Kirol egokituaren jaialdia

Beste behin ere Andoain herria kirol egokituari eskainitako plaza bilakatu da. Lan handia eta ona egin zen, eragile askorekin batera.





Erraldoi eta Buruhandien konpartsarekin batera, Bosko Anitz txarangak plazan eta herrigunean zehar kalejira ikusgarria egin zuen. Jaien hasiera ekitaldiz beterik izaten da, Urnietan. AIURRI



Funky taldeko kideek emanaldi ikusgarria eskaini zuten, Saroben. AIURRI



Dantza garaikidearen alorrean, zaletu ugari ditu funkyak. AIURRI



Buruhandiek emozioa eta algarak eragin zituzten ingurukoaren artean. AIURRI

Uda giroko Gazte Festak

Azkar batean igaro dira oporraldiaren atariko jaiak. Uda girokoak izan dira, gainera, tenperatura handiarekin. Kantatzeko, jolasteko eta dantzatzeko aukerarik ez da falta izan. Urnietako datorren hitzordu nagusia San Juan bezpera izango da



Jai Batzordeko hainbat kidek jaien hasierako suziria piztu zuten. AIURRI



Gazte Festen hasieran Egape dantza taldeak saio ikusgarria eskaini ohi du. AIURRI



Egape dantza taldeak hiru egunetan jarraian parte hartze nabarmena izan du Gazte Festetan. AIURRI



Urteko jai ezberdinen animazioan Bosko Anitz txarangak ezinbesteko lana egiten du. AIURRI

Egapetxou Etxeberri plazan



Laura Claudino, Olatz Iturzaeta, Vanesa Sanchez eta Luke Goñi. AIURRI



Haur eta helduek adi-adi jarraitu zuten antzerkia Etxeberri plazan. AIURRI



Fran Bravo Froulizio Jainko Naturalaren paperean. AIURRI



Antzezlanaren amaieran, ikusleak batu zitzaizkien. AIURRI

Ametsen tenplua Egapetxou antzerki taldeak "Ametsen Tenplua" antzezlanaren Etxeberri plazara eraman zuten, ikusle mordoska bilduz. Bertako parkea bera erabili zuten atrezzo gisa. Joxe Mari Berasategik zuzentzen duen taldea da Egapetxou.



Haurrak eta adinekoak dantzan aritu ziren, uda beteko giroan. Goizetik ilunabarrera arte, Urnieta dantzan aritu zen. ALMUSALAS



Plazido Muxika plazan, eguzkipean, dantzariak saio ikusgarria eskaini zuten. ALMUSALAS



Talde ezberdinak batera dantzan ikustea ikusgarria da. ALMUSALAS

Urteroko dantza festa ikusgarria

Eguraldiak ere festarekin bat egin zuen. Egape dantza taldeko kideak pozarren daude, adin guztietako berrehun dantzari elkartzea lortu zutelako. Lourdes Iriondo musika eskola, Txanbolin eta Orbeldi dantza taldearen partaidetzarkin eguna borobila izan zen



Euskal dantzaren alde lan handia egiten ari da Egape dantza taldea. ALMUSALAS

POSTONTZIA

Urnieta
udala

URNIETAKO UDALA

Urnietako Gazte Festen balorazioa

Aurtengo Gazte Festetan beroa izan da protagonista nagusia. Halere, programaturiko ekintza guztiak gauzatzeko aukera izan da, nahiz eta kasu batzuetan azken orduko aldaketak egin behar izan diren. Esate baterako,

larunbateko gazteen bazkaria Idiazabal kalean ospatu beharrean Egape ikastolara lekualdatu zen.

Txupinazoaren egunean mailaz igotzea lortu duten futbol taldeko neskei eta eskubaloitako taldeko mutilen zorianak emateko harrera egin

zitzaien Udaletxean. Txupinazoa jaurtitzeko ardura berriz, Jai-Batzordeko kide batzuk izan zuten, Urnieta festak aurrera ateratzeko burutzen duten lan guztiaren aitortza moduan, beraien ekarpenik gabe ezinezkoa baita horren programa aberatsa eta anitza izatea.

Larunbatean herria dantzan ipin zen "Urnieta dantzan" jaialdiarekin. Giro polita sortu zen eta jende mardoa bildu zen, batez ere, Plazido Muxika

plazan ospatu zen jaialdi nagusian. Arratsaldean, beroari aurre eginez, jende dezente animatu zen Zumbaton eta Urnieta Warrior probatan parte hartzera. Igandean berriz, umeek asko gozatu zuten Egape ikastolan jarritako puzgarri eta jokoekin. Bestalde, lehen aldiz antolatutako Egapexou antzerkia, kantujira, karabina tiraketa eta oka jolasa ekitaldiei oso harrera ona egin zitzaien.

Oro har, giro ona nagusitu da. Dena den, gauetan istilu eta borroka batzuk izan dira gazteen artean, eta Udalak kezka eta ardura agertzen ditu jokoera horien aurrean. Festak ondo pasatzeko eta gozatzeko dira, baina betiere, besteekiko errespetuz. Beraz, jarrera eta ekintza bortitzek ez dute lekurik izan behar. Udalak jokoera horiek irmoki salatzen ditu, eta hurrengo ospakizuetan horrelakorik ez errepikatzea espero du.



Txanbolinen kontzertua kalejiran amaitu zen. Dantza egitera animatu ziren hainbat herrikide. AIURRI



Txanbolin taldeak Egape dantza taldekoen laguntza izan zuen, igande eguerdiko emanaldian. AIURRI



Kantari gazteak taulagainera igo ziren. AIURRI

Bero ikaragarria larunbat arratsean



Urnieta Warrior probak gaztetxo askoren interesa piztu zuen. AIURRI



Ibilbide ikusgarria osatu zuten, partaideei ariketa ezberdinak eginaraziz. AIURRI



Dozenaka haur zain izan ziren, proba hasteko gogoz. AIURRI



Barrakatan orekari eusteko zailtasun handiak zeuden. AIURRI

Haur eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak Tenperaturak hogeita hamar gradutik gora izan arren, haur eta gaztetxoak jaietan parte hartzeko gogoz zeuden. Zumbaton eta Urnieta Warrior ekimenetan edota barrakatan, parte hartzea handia izan zen.



Andoaingo Haurren Euskal Jaialdia tradizio handikoa da. Irudian, Urki dantza taldeko kideak. AIURRI



Herrigunean zehar dantza saio ezberdinak eskaini zituzten. AIURRI



Ustaritzetik etorritako dantza taldea Goikoplazan aritu zen. AIURRI



Juanan Lazkano eta Naiara Lasarte izan dira aurtengo kartelaren egileak. AIURRI



Euskal Herri osoko taldeak hurbildu ziren. Tartean, Ordiziako abesbatza. AIURRI

Eguzkipean dantzan

Uda giroko asteburuan, Andoain euskal giroko tradizioan murgildu zen. Dozenaka dantzari kalez kale ibili ziren, egunari amaiera Goikoplazan emateko. Azken hiru hamarkadatan jaialdia antolatzen ibili eta gero, Urkiren ospakizuna eredu bilakatu da



Erromerian dantza egiten jarraitzeko aukera izan zen. AIURRI



Agenda 21 ekimenaren bitartez ingurugiroari lotutako hainbat proposamen luzatzen dira. AIURRI

Agenda 21, eskaerez beteta

Aita Larramendi ikastola, La Salle Berrozpe, Leizaran eta Ondarreta ikastetxeetako ikasleek hondakinaren kudeaketa jorratu dute ikasturte honetan. Maiatzaren 10ean ondorioak udaletxean bertan aurkeztu zituzten, Udal ordezkarien aurrean

Xabier Lasa ANDOAIN

LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleek hondakinaren aurrean duten jarrera eta ezagupenak aztertu dituzte, eta praktika onak ezagutzeko aukera ere izan dute. Ez dira horretara mugatu eta azterlana etxeko eremura, herrigunera eta saltokietara zabaldu dute. Ikasleen ordezkariak esan zuten, "jasangarritasunaren irizpideak diseinatzeak jendartean eta ingurumenean onurak dakartza. Horregatik, hobekuntza-proposamen batzuk proposatze-erroti gara, baita gure gain hartuko ditugun konpromisoak azaltzerare".

Jokaera desegokiak

Andoaindarraren jokaerak aztertu dituzte, eta etxeko eremuari dagokionez hara zertaz ohartu diren, besteak beste:

- Etxean behar dutena baino gehiago erosten dute, eta ondorioz, zabor asko sortzen dute.
- Zaborra murrizten askoz ere gehiago saiatu behar dute, ez sortzeak, arazoa desagerrarazten duelako.
- Sortzen duen hondakinaren gehiengoa zaborretara botatzen du eta gutxi berrerabiltzen du; batez ere, gazteok eta helduek.

Kaleari begira jarritz gero, hona ikasleek atera dituzten zenbait ondorio:

- Edukiontzia mota desberdinak egon arren, leku guztietan era guztietakoak ez daude. Batez ere, arropa, olioaren eta pila biltzeko zaborrontzi gutxi dago.
- Zaborrontzi handiak ez dira erosoak ume, gazte, adindu eta mugikortasun arazoak dituztenentzat.

- Zaborrontzien inguruan zabor ugari pilatzen da, herritarrek kanpoan uzten dituztelako.
- Herritar askok hondakinak gaizki sailkatzen dituzte.
- Hondakin arriskutsuak eta bereziak biltzeko etxolaren berri herritar gutxi dute edota gutxi erabiltzen dute.
- Aisi garaian hondakin asko sortzen dituzte, batez ere, gazteok eta helduek, eta horietako asko lurrera edo belardietara botatzen dituzte, batik bat, zigarro muturrak, mokadutxoak edo ontziak, bildukinak eta hondar edo azalak.
- Hondakinok jasotzeko ontzi ugari daude, baina leku batzuetan oraindik gehiago jarriko genituzke, batik bat, Manuel Lekuonan, Goiko plazako frontoiaren inguruan, Jose Luis Lopez de la Calle parkean.

- Edukiontzia txiki askok oraindik sailkatzeko aukera ez dute ematen; hala nola, Juanita Alkainen, Ondarreta parkean, Txistoki pasealekuan (batzuk falta dira) eta Jose Luis Lopez de la Calle parkean.
- Txakur jabe askok oraindik gorotzak ez dituzte jasotzen.

Herri saltokien inguruan egin zituzten gogoeten artean, hona zenbait:

- Salmenta leku gehienetan sortzen duten hondakina plastikoa eta papera edo kartoia dira.
- Denda eta saltoki gehienetan saltzen diren produktuak bilgarri ugari dituzte eta asko alferrikakoak dira. Plastikozko poltsak saltzen dira, herritarrek etxetik eramaten ez dituztenarako, batez ere.
- Saltokietan salgai dauden produktu gehienak urruti ekoiztutakoak direla. Erosle gehienek ere non ekoiztu diren ez dakitela.
- Askok ez dute ezagutzen Andoain zain gure eskualdean ekoizten diren produktuak zeintzuk diren.
- Bildukin gabe erosketak egiteko aukera murrizten ditugu (azoka...).

Ikasleen konpromisoak

Hondakinaren kudeaketaren inguruko diagnostikoa egin ostean, hona zer nolako konpromisuak hartu zituzten ikasleek:

- Ez ditugu helduen ohitura txarrak jarraituko.
- Zaborra ez dugu lurrera botako edo kalean utziko. Zakarrontzirik ez badago, gurekin eramango dugu.
- Norbait hondakinak lurrera botatzen ikusten badugu, zakarrontzira botatzeko eskatuko diogu. Lurrean ikusten ditugun hondakinak ere jaso egingo ditugu.
- Zaborra hobeto sailkatuko dugu. Zalantza sartzen zaigunean, galdetu egingo dugu. Ingurukoei ere berdin egitera animatuko ditugu.
- Behar duguna bakarrik erosiko dugu, kapritxoak alde batera utzita.
- Bilgarri gabeko edo gutxiarik elikagaiak, produktuak eta litxarrerriak erosten saiatuko gara.
- Gauza berriren bat erosi nahi dugunean, bigarren eskuko erosteko aukerarik badaukagun begiratuko dugu.

- Erosketak egiteko etxetik poltsa edo taperra eramango dugu, baita harategi, arraindegia eta fruta-dendetara ere.
- Arropa, aparatuak eta abar hausten zaizkigunean, berri bat erosi aurretik konpontzera eramango dugu.
- Bertako produktuak eta ekologikoak ahalik eta gehien erosten saiatuko gara. Horiek, eta bilgarri gutxiak, herrian non saltzen diren ikertuko dugu eta ingurukoei informatuko diegu.
- Erostean hondakinaren etiketak begiratuko ditugu, jatorria, osagaien ekoizpen modua eta abar jasangarriak diren jakiteko.

Udalari eskaerak

Ekitaldian zehar, Andoaingo Udalari zertan hobetu dezakeen gogorarazi zioten, eta aldi berean zenbait eskaera egin:

- Zaborra lurrera botatzeagatik edo lurrean uzteagatik isunak jartzea.
- Txakur kakak jasotzeko poltsak banatzea eta banderaxoen ekimenari eustea.
- Zigarro muturrak gordetzeko poltsatxo bereziak banatzea edota zaborrontzi bereziak jartzea.
- Edukiontzien aho handiagoa izatea, baxuagoak izatea, errepide ondoan ez egotea eta tapa indarrak gabe zabalatzeko moduan jartzea. Zaborra nola sailkatu jakiteko azalpen irudiak jartzea.
- Olio, arropa eta pilak botatzeko edukiontzia gehiago jartzea, baita hondakin berezien etxola ere.
- Txartela pasatzeko aparatua baxuago jartzea eta pasa ondoren irekita denbora luzeagoz egotea.
- Zaborra ondo sailkatzeagatik saritzea (diruz, herriko dendetarako erosketak bonoak edo deskontuak...).
- Ume, familia eta jubilatuei hondakinak murrizten, berrerabiltzen eta birziklatzen erakusteko tailerrak egitea.
- Ibai ertzeko eta belardietako hondakinak biltzeko lan-taldeak sortzea.
- Erosketetarako taperrak eta zorroak herritarrei banatzea.
- Plastikozko poltsen prezioa, fruta dendetan, arraindegietan eta harategietan garestitzea edo debekatzea
- Bilgarri hondakin ugari sortzen duten enpresei zerga igotzea.



ANDONI URBISTONDO

Mantaleko aterpea

Teilatu berria jarri dute, barruko egur guztiak aldatu, eta aterpe sarrera aurrean halako itxura berezia jarri, ganadua aterpe barrura sar ez dadin. Inguruko mahaiaik ere txukundu dira, eta momentuz iturririk ez badago ere, Udala gaia azertzen ari da. Herritar eta mendizaleen laguntza ere eskatu du, aterpea eta inguruak zaindu, eta egindako lanek luze iraun dezaten.

Trebaketa saioa

Urnieta eskubaloit taldeak jardunaldi irekia antolatu du, ostiral honetarako. Eskubaloit-eskola izeneko ekimena martxan jarriko dute Urnietako kiroldegian, 17:45ean hasita.

Klubetik adierazi dutenez, 2008an, 2009an, 2010ean eta 2011n jaiotako haur eta gaztetxo guztiak gonbidatuta daude



UKE

Zegama-Aizkorri


Argazkian, Beñat Erkizia korrikalaria kilometro bertikalean.

• Mendi maratoia:

54. Unai Ezeiza	4:45:45	Urn
69. Xuban Ezeiza	4:50:30	Urn
111. Mikel Legarreta	5:08:16	Urn
114. Jon Ugalde	5:09:23	And
181. Ainhoa Jauregi	5:37:10	Urn

• Kilometro bertikala:

133. Beñat Erkizia	56:10	And
135. Egoitz Moreno	56:31	Urn



MIREN ERKIZIA

Iturzaeta memorialeko azken txanpan sartuta

Larunbat honetan, arratsaldeko 17:00tan hasita, txapelketako final laurdenak eta final aurre-

koak jokatu dira. Euria eginez gero, partidarik ez jokatzea erabaki dute. Gauzak horrela, euriarekin, partidak igande arratsaldean jokatu dira. Eta, bestela, hurrengo asteburuan.

Aukera berrien bila

Santo Tomas Lizeoaren aurka, Euskaldunak Kopako finala jokatu zuen. Ez zen posible izan. Lasai egon daitezke, ordea. Horrela jarraituz gero iritsiko dira Kopa altxatzeko aukera berriak. Lehenengo zatian eutsi zioten, eta finala bigarren zatian galdu zen



Jokalariak eta prestatzaileak partidaren amaieran. Babes handia jaso zuten harmailetik, argazkian ikus daitekeenez. AJURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Lehenengo zatian paretsu joan zen norgehiagoka, eta jokalariak 3-5eko emaitzarekin sartu ziren aldageletara. Bigarren zatian, ordea, berdinketa lortu ahal izateko Euskaldunako jokalariek lerroak aurreratu egin behar izan zituzten. Eta horrekin erraztasunak eman zizkieten donostiarrei. 3-10 emaitza gogorrenekin amaitu zen finala.

Andoingo zaletu ugari hurbildu zen Zubietako zelaira.



June Igerategi, hegaletik, aurrera egiten ahalegindu zen. AJURRI

Jokalariak eta prestatzaileak

Aritz Valdemoros, Antonio Leal eta Achraf Yerrou entrenatzaileek honako hamaikakoa zelairatu zuten: Leire Mosquero, Olatz Igerategi, Laura Alonso, Mara Lasa, Beatriz Teixeira, Maider Arabaolaza, Leila Txueka, Irene Fuentes, Maite Urruzuno eta Alazne Valle. Bigarren zatian, Maria Carril, Ane Lazkano, Idoia Urruzuno, Irati Zabala, Maialen Oartzabal eta June Igerategi ere jokoan sartu ziren.

Atsedean hartuko dute udan, denboraldi berrian amets berriei ekiteko.



Andoingo zaletu ugari hurbildu zen Zubietara. AJURRI

Aitortza festen hasieran

Gazte Festei hasiera eman aurretik, funtzioetan dagoen Udal korporazioak Urnietako emakumezkoen futbol taldeari eta gizonezkoen eskubaloi taldeari omenaldia egin zien. Bi taldeek mailaz igotzea lortu baitute

Erredakzioa URNIETA

Mailaz igo diren eskubaloiko eta futboleko talde banari harrera egin zieten Gazte Festen hasieran, txupinazoa egin aurretik. Emakumezkoen futbol taldeak oherrezko erregional mailara igotzea lortu du, eta eskubaloiko mutilek nazional bigarren mailara. Uda ordezkariak harrera egin ondoren, bi taldeetako kirolariak balkoira atera ziren. Plazan bilduta zeuden herritarren txaloak jaso zituzten.



Udal ordezkariak eskertza eta aitortza eskaini zieten herriko bi kirol taldeei. AIURRI



Senior mailako neskek igoera lortu dute, Gorengoan futbol mailan. AIURRI



Eskubaloiko jokalariek 2. Nazional mailan arituko dira hurrengo denboraldian, igoera lortu eta gero. AIURRI

Kirol jarduerak guztientzat



Saskibaloia partidak Goikoplazan. Maila bikaineko jokalariek hurbildu ziren.



Areto futbol partidak antolatu zituzten, bero ikaragarriarekin.



Izartxo aisialdi taldeari esker ona adierazi zieten antolatzaileek.



Gazteleku eta Ganbara kirol taldeek ere eskertza bana jaso zuten.

Kirol egokituaren festa Andoaingo Batzokiaren eskutik, joan zen larunbatean kirol jarduerak ugari antolatu zituzten Goikoplazan. Areto futbola, saskibaloia, pilota,... Batzokia eta Federazioa ez ziren, gainera, bakarrik aritu. Herriko hainbat taldek ere bat egin zuten.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 6

URNIETA Ikastaroak

Udal ikastaroen deialdia zabalik, izena-emateko aukera dago.

Informazioa: Urnieta.eus.

URNIETA Erakusketa

Ekainaren 10era bitarte, Egapeko ikasleen eskutik. Kongoren aldeko kanpainaren baitan.

Ohiko ordutegia, Lekaio.

URNIETA Hitzaldia

"Gure burua zainduko dugu" hitzaldia, Carmen Rodriguez eta Luz Perez zainketa intentsiboetako erizainen eskutik. Gaixotasun kardiobaskularrei buruz arituko dira.

18:30, Sarobe.

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskolako emanaldia: Pianoa, klarineta...

18:30, Sarobe.

VILLABONA Sari banaketa

111 Akademia Literatur sariaren sari banaketa ekitaldia, Larramendi Bazkunaren eskutik. Harkaitz Canok iazko eleberrri onenaren saria jasoko du Amasako Hika txakolindegian

19:00, Hika txakolindegia.

ANDOAIN Ekitaldia

Karkabako muralak margotzeko lanen irekiera ekitaldia eta garai bateko Iparragirre zinema gogoan hartzeko ekitaldia. Cinema Paradiso filma eskainiko dute. Euriarekin, ekitaldia aste bete atzeratuko dute.

21:00, Bisitaldi gidatua.

22:30, Zinema emanaldia.

OSTIRALA 7

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskolako abeslariak eta Easo abesbatza

18:30, Sarobe.

ANDOAIN Entsegua

San Juan jaietan Axeri dantza prestatzeko entseguak. Hurrengo entseguetako datak: Ekainak 10, 12, 18 eta 30. 2002an edo lehenago jaiotakoak.

20:00, Ondarreta.



Cinema Paradiso filma eskainiko dute Kale Nagusian, ostegun honetan.

ANDOAIN Zinema kalean

Iparragirre zinema gogoan, iraganeko zinemari gorazarre egin diete mural sortaren bitartez. 21:00etan bisitaldi gidatua, eta 22:00tan film emanaldia.

Ekainak 6, osteguna. 22:00, Kale Nagusia.

ANDOAIN Antzerkia

"Ramon eta Julieta" antzezlan.

21:30, Bastero. Euskaraz.

LARUNBATA 8

URNIETA Musikaren eguna

Lourdes Iriondo musika eskolaren eskutik, Musika Egunaren lehen edizioa. Goizean tailerra jasoko dute eta arratsaldean berriz, emanaldia. Euriarekin Basteron izango da.

17:30, San Juan plaza.

ANDOAIN Kontzertua

Myriam Ulanga Elors Udal musika eskolako irakaslearen emanaldia.

12:00, Bastero. 3 euro.

MIARRITZ Giza-katea

"Bakea Euskal Herrian. Orain presoak" ekimena, Sareren eskutik.

14:45, Bus irteera eskualdetik.

16:0, Giza-katea.

ASTELEHENA 10

ANDOAIN Hitzaldia

Apustu etxeen gorakadaz eta ludopatiak kezkatutik, Ekintza Bide elkarteak hitzaldia eskainiko du.

18:30, Urigain.

ANDOAIN Entsegua

San Juan jaietan Axeri dantza prestatzeko entseguak.

20:00, Ondarreta.

OSTIRALA 14

ANDOAIN Erakusketa

Xarma, Marga Aldabururen eskutik. Ekainaren 14ra bitarte zabalik.

Bastero, erakusketa gela.

URNIETA Antzerkia

"Frootxoak", Egapeko antzerki eskolaren eskutik.

18:00, Sarobe.

LARUNBATA 15

ANDOAIN Rock jaialdia

Thurston Moore Group, Tropical Fuck Storm, Dimi Dero Inc, The Rockingbirds, The Llamps eta Mice.

18:00, Nafarroa plaza.


ASTEARTEA 18

ANDOAIN Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek "Musua" bideoz grabatuko dute.

16:00 / 18:30, Bastero.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Los hermanos Sister**

Larunbata, 8: 19:30, 22:00.
Igandea, 9: 19:30.
Ast, 10: 19:30; 22:00.

Aladdin

Lar, 8; Ig, 9: 17:00.
Black is beltza
Astr, 11: 20:00.

KALE NAGUSIA

Cinema Paradiso
Ostg, 6: 22:00.



SINOPSISIA

**Los hermanos Sister**

Zuz.: Jacques Audiard. **Herr.:** Frantzia (2019). **Generoa:** Westerna.

Hizkuntza: Gaztelania. **Aktoreak:** Joaquin Phoenix, John C. Reilly, Jake Gyllenhaal. **Iraupena:** 121 minutu.

Urrea, odola, anaiak

1850. urtea. Bi anaien istorioan oinarrituriko filma. Gupidagabe hainbat lagun hil dituzte, eta

antzeko enkargua jaso dute. Ameriketan barrena egindako bidaia.



Carmen Rodriguez eta Luz Perez erizainak hizlari arituko dira. **AJURRI**

"Gure burua zainduko dugu"


Ekainaren 6an, ostegunarekin, "Gure burua zainduko dugu" hitzaldia antolatuko dute Lekaion. 18:00tan hasiko da eta sarrera doakoa da. Carmen Rodriguez eta Luz Perez zainketa intentsiboetako erizainak gaixotasun kardiobaskularrei buruz arituko dira. Aztergai nagusiei buruz arituko dira: Bihotzaren funtzionamendua, artikulazio eta arterien zirkulazio sistemak, gaixotasun kardiobaskularrak, diagnostiko probak eta tratamendua, kirurgia teknikak eta bizkortzea, desfibriladoreak,...

Prebentziorako hainbat ideia eskainiko dituzte, elikadura eta ariketa fisikoari buruzko gomendioak ematearekin batera.

ZORION AGURRAK



URNIETA-ANDOAIN
Aiur Garcia Alvarez
Aiurrek 5 urte egingo ditu
ekainaren 5ean. Zorionak
txapelduna!!!



ANDOAIN
Lur
Ekainaren 8an 6 urte
beteko ditu Lurrek.
Zorionak maitia! Muxu
potolo bat!



ANDOAIN
Joxe Mari Ollakarizketa
Ekainaren 2an 55 urte bete
zituen. Besarkada bero bat
eta muxuak etxekoan
partez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 8 eta igandea 9

ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 8 eta igandea 9

ALDABE: Perkaiztegi, 8.
943 336 022. Hernani.

GAUEZ: ALDABE. Hernani.



Katramilako gaztetxoek egundoko trebetasuna erakutsi zuten, oholtza gainean.

Katramila taldearen ospakizuna

Haur eta gazteek antzerki emanaldiak eskaini zituzten Basteron, joan zen asteburuan. Iker Etxarri eta Kristina Roperok irakaslearekin ikasturte osoan jardun ostean, jendaurreko txanda heldu zitzaizkien. Oholtza igota hasieran normala den urduritasun pittin bat sentitu arren airoso aritu ziren denek ere.



Kristina Roperok zuzentzen dituen gazteek ostiralean eskaini zuten emanaldia.



Gaztetxoek esker ona agertu zioten Iker Etxarri irakasleari, larunbat arratsaldean.



www.andoainberdin.org webgunean galdetegian parte hartzeko aukera dago. AIURRI

Berdintasun plan berriari begira lanean hasi dira

Daiteke gizarte aholkularitzaren eskutik, Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak datorren asterako lan saioak antolatu ditu. Urigainen bilduko dira, eta bitartean www.andoainberdin.org webgunean galdetegia bete daiteke.

Amaia Senperena ANDOAIN**Azalduko al zenukete zer den aurrera eramaten ari zareten berdintasun plana?**

Sandra: 2014an onartu zen bigarren berdintasun plana. Garai horretan oraindik ez zegoen Berdintasun sailik, eta guztia Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen zen. Planak lau urtetako iraupena izaten du, eta ondoren ebaluaketa eta berdintasun plan berri baten definizioa etorriko dira. Aurten hasi gara balorazio eta ebaluazio lanarekin.

Plana nolako garatuko da?

Jaione: Herritarrei begira bi topaketa ezberdin aurkeztu ditugu, egindakoaz hausnartzeko

eta aurrera begira jartzeko garrantzitsua baita herritarren impresioak jasotzea eta ezagutzea.

Lidia: Hurrengo astean izango dira saioak, zehazki, ekainaren 12an eta 13an. Lehen egunean emakumeak, emakumeen elkarteak eta mugimendu feministak gonbidatuko ditugu. Eta 13an, berriz, herritarrak eta herriko eragileak.

Zer da plan honekin lortu nahi duzuen?

Sandra: Lehen helburua, berdintasun plana egonkortzea da. Bigarrena, epe luzerako erronka handi moduan, genero ikuspegia udaleko beste politika arloetan txertatzea da. Eta hi-

rugarrena, indarkeriaren eta jabeakuntzaren inguruan dauden ildoak egonkortzea eta aurrera begirako urratsak ematea.

Herritarrak erraz animatuko al dira?

Jaione: Parte hartzeko esangorik ez dago. Berdintasun plan berriak hurrengo lau urtetarako politikak zehaztuko dituelako. Agian, oso urruti dagoela dirudi. Baina gure kaleko argiteria edo kalean ditugun gune beltzak gaunditzeko udalean dauden teknikariek jenero ikuspegian formakuntza jaso behar dute. Garaia orain da. Proposamenak eta eskariak jasotzeko garaia da.

Adinekoen kultur astea Urnietan, ekainaren 10etik 16ra

Denda Berri pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak antolatuta, jarduera ezberdinak antolatu dituzte

Erredakzioa URNIETA

Ekainaren 10 eta 11rako umore terapia tailerra antolatu dute, arratsaldeko 17:00tan hasiko dena.

Ekainaren 12an Anoeta eta Alegia arteko ibilaldi neurtua egingo dute.

Ekainaren 13an, ostegunarekin, bingoa 17:30ean hasita.

Andoainen eta Argentinan, bihotza erdibituta

Paola Gomez argentinarrak hamabost urte darama Andoainen bizitzen. Heldu orduko ez zuen zalantzarik eduki: euskara ikasi beharra zeukan. Jendaurrean lan egiteak euskara praktikatzeko aukera ahalbidetzen dio

Xabier Lasa ANDOAIN Noiz heldu zinen hona?

2005ean, eta kasualitate hutsa izan zen. Senarraren familiakoak hemen bizi ziren eta haiek tentatu gintuzten etortzeko. "Korralito"aren aurreko krisi garaia sufrizten genuen, eta Argentina uztea iruditu zitzaigun egokiena. Gure helmuga Europa zela, askoz gehiago ez nekien; niretzat Espainiakoa jendea, galiziarra zen; badakizu, topikoen indarra... Nolanahi ere ez nuen denbora askorik behar izan "lur hartzeko" eta ohartzeko Euskal Herri-ira irisi nintzela, eta bertan integratzeko nahitaezkoa dela hizkuntzarekin eta ohiturekin bat egitea.

14 urtez Euskal Herrian, damu zara etorri izanaz?

Batere ez! Dena dut gogoko hemen, paisajea, giroa, jendea, ohiturak, hizkuntza...

Zerk deitu zizun arreta Andoainera etorri eta segituan?

Lehen begi kolpean, Kale Nagusiko alde zaharrak eta bere etxeen egiturek, formak... Eta aldi berean, Leitzarango bailarak! Gizar-teari begira, berriz, jendeak zeinen ondo antolatua daukan dena, horrek eman zidan zer pentsatua. Ordutegiak, eguneroko mugimenduak... Ameriketatik datorren batentzat harri-



Paola Gomez argentinarrak andoaindarra. AIURRI

garria da herritarrak nola inplikatzeko diren hondakin birziklapenean, zeinen garbia dagoen dena. Hemengo bat Argentinara joango balitz, zeharo harraritu litzateke, hango kale zikinak ikusita, ze gutxi birziklatzen den... Zerbitzu publikoen alorrean ere, zer esango dizut! Hemen kexatu egiten da jendea, baina hangoarekin ez dago kon-

paratzerik. Han denagatik ordaindu beharra dago. Argentina Ameriketako herrialderik europarrarena dela diote, baina ez dakit...

Kanpotar sentitzeko motiborik bala daukazu?

Batzuetan bai. Nahiz eta hemengo ohiturak-eta hartzen joan eta saiatu integratzen, barru-barruan kontziente zara ez zarela hemen-

goa erabat, eta horrek zerbait markatzen zaitu. Esate batera, jaiak ez ditut bizi hemengo baten antzera, nahiz eta euskal dantzen ikastaroetan parte hartu eta gero saiatu erromerietan dantzan egin.

Amerikar ugari itzultzeko gogoz egoten dira. Eta zu?

Bietan zatitua daukat bihotza, Argentinan eta Euskal Herrian, baina ezetz esango nuke, zerbait erantzutekotan. Han daukat familiaren zati bat; etorri izan da hona bisitan, eta ikaragarri gustatu zaie Euskal Herria. Ulergarria egiten zaie gu hemen geratu nahi izatea.

Euskaldunak itxiak direnaren ustea, topikoa ote?

Ezetz esango nuke. Beharbada Argentinakoekin gertutasuna handiagoa erakutsi ohi dute, iraganean garai txarretan hemendik hara joandako familia asko dagoelako. Gaztelania ezagutzeak ere asko errazten du komunikazioa.

Euskara zer moduz doakizu?

Etorri eta berehala familia osoa Villabonako irakasle batekin jarri ginen euskara ikasten. Geroxeago, lantokiko baldintzak zirela medio, Ordiziako eta Lasarteko euskaltegietan jardun nuen. Andoaingo euskaltegira joaten naiz une honetan. Poliki-poliki ari naizela esango nuke. Hizketan hasten naizenean, gehien kostatzen zaidana euskaraz pentsatzea izaten da; izan ere, buruz, ezin da erderatik euskararako itzulpen literala egin! Hala ere, eguneroko bizimodua da niretzat euskaltegirik praktikoa; bi semeekin saiatzen naiz, ikastolatik bidaltzen dituzten euskarazko oharrak irakurtzen ditut, Aiurri sarean irakurtzen dut... Orendain eta Alegian aerobica eta gimnasia

ematen ditut, eta hango jendearekin ere ederki praktikatzeko dut, nahiz eta ez oso ondo moldatu hitz guztiei itsasten dieten "e" horrekin... Euskal musika jartzeko eskatzen didate ikasleek. **Han hemen zabilta lanean...**

Argentinan magisteritza ikasi nuen, baina hemen zaila egiten zait lana topatzea. Hezkuntza formalaz kanpoko ekintzetako irakaslea naiz, eta gimnasia, aerobica eta zumba irakasten ditut Orendain, Alegia eta Andoainen; azken honetan Zumbalokura zentroan. Uda partean, berriz, Zizurkilera Pasusen lan egiten dut zerbitzari bezala. Herri txiki horietan polita izaten da euskararen kontu hori, ze bezeroak ohartzen direnean kanpotar izanik euskaraz saiatzen zarela, eskertu egiten dizute eta gertutasuna adierazten dizute.

Kirola praktikatzeko grina zabaldu da azken aldian...

Nik gorputza mugiarazten duten kirol eta jardun guztiak ditut gogoko, gimnasia, bizikleta, lasterketa, aerobica... Ona da osasunarentzat, gorputzarentzat zein buruarentzat, eta horretaz gero eta gehiago jabetzen ari da gazte jendea. Gorputzak guztiei ematen dizkigu seinaleak, adieraziz estresak jota gaudela, bizi-tza dena azkar ari garela kontsumitzen... Premia latza daukagu gorputza astintzeko eta burua kezke husterko, gimnasioan ordu betez besterik ez bada ere.

LEIHOA BEHERAINO BETE LEIHOA BEHERAINO BETE LEIHOA BEHERAINO BETE LEIHOA



1949an jaiotako bazkaria

1949. urtean jaiotakoek urteroko lagunarteko bazkaria egin zuten. Taldeko argazkia atera eta gero, Oianume jatetxera hurbildu ziren. Denera, 28 lagun elkartu ziren.

